

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Alkatearen ebazpenaren laburpena (19/586), zeinaren bidez Udako Euskal Unibertsitateak antolatutako euskara ikastaroak egiteko beka deialdia egiten baita

BDNS (identifikatzailea): 472368

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorriz, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>.

Lehenengoa. Onuradunak

Amurrion erroldatuta dauden eta 16 urte baino gehiago dituzten pertsona fisikoak.

Bigarrena. Helburua

Deialdi honen helburua da dirulaguntzak arautzea Amurrioko herritarrek Udako Euskal Unibertsitateak antolatutako euskara ikastaroak egin ditzaten.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Dirulaguntzaren oinarri arautzaileak Aurrekontua Betearazteko Udal Arauaren VII. Kapituluan jasota daude, eta 2019ko uztailaren 10eko ALHAOn argitaratu ziren. Horien artean, 32. oinarrian, Udako Euskal Unibertsitateak antolatutako euskara ikastaroak egiteko beken oinarri arautzaileak jasotzen dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdia 500 euroekin dago hornituta.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

2019ko urriaren 1etik 31ra.

Amurrio, 2019ko irailaren 5a

Alkatea

MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA